

ELKARTEAK

Gure proiektua egiteko hainbat aliantza egin beharko ditugu, izan ere, proiektu hau ezin dezakegu guk bakarrik gauzatu, laguntza asko beharko dugu, bai produktua ekoizteko (piezak, kanpo diseinua...), baita lan egiteko tokiarentzat ere, hau saltzeko, eta web gunea sortzeko.

Uggasa enpresarekin harremanetan jartzea lehenik egin behar dugun aliantzetako bat da, Uggasak eskainiko digulako lan egiteko lokala. Aliantza honek lana egiteko tokia proportzionatuko digu eta hau lehenik eduki behar dugun gauzetako bat da, horrez gain, talde hau Urola Garaiko garapen agentzia bat da eta lokala oso prezio egokian eskaintzen digute.

Fagor-ekin ere kontaktuan jarriko gara, aterki-ontziaren pieza batzuekin beraiek lagundu beharko digutelako. Berogailua eta labeen erresistentziarekin laguntzeko eskatuko diegu. Enpresa honek, labeen erresistentziak egiten ditu eta gure aterki-ontziak antzeko sistema bat erabiliko du aterkiak lehortzeko. Gainera, piezekin arazorik izango bagenu, beraiek laguntzeko prest egongo direla uste dugu eta prezioa beraiekin negoziatu beharko dugu, piezak eta laguntza guztia kontuan hartuta.

Piezekin jarraitzeko, AOLQ markak aterkiak poltsa batez inguratzen dituen aterkiontzi bat du, eta produktu hau ikusita, gure aterkiontziko kanpoaldea (diseinua) egiteko eskatuko diegu, hau da, barru zati guztiak (berogailua, sarea,...) inguratuko dituen pieza. Aliantza hau egitea erabaki dugu, izan ere, pentsatu dugu beraiek duten produktuari modifikazio bat emanda lagundu ahalko digutela.

Bestalde, Ferrokey eta Coferdrozarekin kontaktuan jarriko gara gure produktua bertan saltzeko. Bi kooperatiba hauek aukeratu ditugu gure produktua Espainia mailan ezaguna izateko, izan ere, beraien produktuak saltzen dituzte, eta ospe handia dute beraien sektoreetan.

Horrez gain, Amazonekin ere aliantza egitea garrantzitsua da, baina hasiera batean ez dugu espero Amazonetik asko salduko dugunik, produktua ez delako oso ezaguna, baina ezaguna egiten denean, salmentak egiteko Amazon oso plataforma egokia dela iruditzen zaigu, denon eskura dagoelako.

Bukatzeko, gure webgunea egin ahal izateko beste enpresa batekin kontaktuan jarri beharko gara eta webgunea sortzeko beharrezko pausuak

ematen lagunduko digute. CodeSyntax enpresak webguneak egiten ditu, eta pentsatu dugu beraiekin kontaktuan jartzea, horrela gure eta beraien artean web gune bat sortzeko, iruditzen zaigulako ezinbestekoa dela gure webgunea edukitzeko. Bezeroekin harremanetan jartzeko modu egoki bat da, eta beharrezkoa da bertan produktua saldu nahi badugu.

Publizitatea egiteko denda batean ikusgarri jarri ahal izateko, deda horiekin kontaktuan jarri beharko ginateke, honetarako dendetara joan eta gure proiektua aurkeztuko diegu, honela ikusgarri jarri ahal izateko eta jendearen atenzioa deitzeko.